

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Bihar, asteazkena, 08:00etatik aurrera, NOGko helduen larrialdi-kasu guztiak eraikin berrian artatuko dira

Ama-hurren premiazko arreta Virgen del Camino ospitalean ematen jarraituko da, orain arte bezala

Martes, 07 de octubre de 2014

Bihar, hilak 8, Nafarroako Ospitaleko barrutian eraikitako Larrialdietako eraikin berria funtzionatzen hasiko da, eta goizeko 08:00etatik aurrera, Nafarroako Ospitaleguneko helduen premiazko arreta guztia bilduko da bertan.

Une horretatik aurrera, Nafarroako Ospitaleko eta Virgen del Camino ospitaleko Larrialdietako egungo zerbitzuen jarduera etengo da, nahiz eta bietan osasun-langileek jarraituko duten aurretiazko kasuak nahiz gerta daitezkeen beste kasu batzuk artatzeko. Ama-hurren larrialdiek oraingo leku berean jarraituko dute, Virgen del Camino ospitalean.

3.500 metro koadroko azalera hartzen duten instalazio berriak soto, behe-solairu, lehenengo solairu eta zabaltzan dagoen heliportuan banatuta daude, eta bi sarbide ditu paziente ibiltarientzat (beren kasa doazenak) eta anbulantziatarako. Bereizitako bi zirkuitu daude, kasuen larritasunaren arabera (A, arinak; eta B, larriak), eta pazienteak identifikatzeko sistema bat jarri da anonimotasuna eta intimitatea errazten dituen kode baten bidez.

Guztira, 29 kontsulta daude, 30/60 box-etako balio anitzeko arreta-gela bat, 6/12 kasuetarako bizkortzeko gela, erradiologia gune bat eta zenbait itzarote-gela, bai eta kontrol zentraleko gela bat (medikuak) eta beste bi kontrol gehiago ere (erizaintza) bi zirkuituetarako. Sotoan eskaner bat eta ekografo propio bat jarri dira, eta lehenengo solairuan obserbazio-gela bat dago, bereizitako 18 gelek; bertan laguntzaile bat izatea erraztuko da ahal den neurrian.



Larrialdietako eraikin berria eta kokapen-planoa.